# OLAJ-EN BIDAIA

Testua eta irudiak: MARTÍN LEÓN BARRETO

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean egina, 22 x 22 cm. 48 orr. 13 €

ALBUM ILUSTRATUAREN COMPOSTELA NAZIOARTEKO IV SARIA

**Olaj-en bidaia** (euskara)
ISBN 978-84-7681-691-2. Kalandraka-Pamiela

**El camino de Olaj** (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-768-3. Premio Compostela

**A viaxe de Olaf** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-769-0. Premio Compostela

**El viatge de l'Olaj** (katalana)
ISBN 978-84-15170-11-2. Kalandraka-Hipòtesi

**A viagem de Olaj** (portugesa)
ISBN 978-989-8205-71-1. Livros para sonhar




*Olaj planeta txiki-txiki batean bizi zen*
*etxe oso-oso handi batean.*
*Egun batean, aspertuta, Olaj ibiltzera atera zen... eta ibili zen!*
*Olaj ibili zen eta ibili zen, eta isatsa alderantziz zeukan legatz*
*batekin topo egin zuen.*
*«Lagunduko didazu?», galdetu zion,*
*eta ezetzik esan ez zuenez...*

■ Gaiak: laguntza eta adiskidantza bila egindako bidaia iniziatikoa.

■ Gomendatutako adina: 5 urtetik aurrera.

■ Alderdi azpimarragarriak: Album Ilustratuaren Compostela Nazioarteko IV. Sariduna; metatze-kontakizuna, egitura errepikakorra (ipuin tradizionalak); irudizko animaliak; astronomia; oparotasun kromatikoa, forma geometrikoak.

Egitura errepikakorreko metatze-kontakizun zirkular honetako protagonista halako Printze Txiki bat da, bakardadeaz nazkatuta, ibilbide iniziatiko bati hasiera ematen diona. Bidean, itxura mitikoa eta balio sinbolikoa duten zenbait animalia harrigarriren laguntza izango du, eta talde heterogenero eta trinkoa osatuz joango da:
isatsa alderantziz zeukan legatza, zaldi hegaduna, ortzadar tigrea, elefante elegantea...

"Olaj-en bidaia" Martín León Barreto-k sorta kromatikoak kolore oparotasunez eta armoniaz konbinatzeagatik nabarmentzen da. Forma geometrikoko irudiak dira, mugimendua eta dinamikotasunez jantziak eta fauna-puzzle konplexu batean bezala txertatuak.

Santiagoko Udaleko Hezkuntza Sailak eta Kalandraka argitaletxeak deitutako Album Ilustratuaren Compostela Nazioarteko IV. Saria eskuratu duen obra ipuin tradizionaletan oinarria duen eskema baten araberakoa da: errimak, kontrakoen jolasak, elkarrizketa errepikakorra, ahozkotasuna... Olaj-ek adiskidetasunaz eta eskuzabaltasunaz diharduen abentura bateko partaide egiten gaitu, egun eta gau oso batez.

**Martín León Barreto**

(Montevideo, 1973)

Disenatzaile grafikoa eta ilustratzailea 1991tik; haur eta gazte liburuetako azalak eta bildumak diseinatzen aditua. Guadalajara-n (España) bizi da eta zenbait argitaletxe eta hedabiderekin kolaboratzen du. Es ilustrador del equipo multimedia 'Tres' multimedia taldeko ilustratzailea da.

http://www.martinleonbarreto.com




www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com